



HONDAKINAK HONDAKINDEGIETAN BILTEGIRATUTA ETA BETELANAK EGINDA EZABATZEA ARAUTZEN DUEN OTSAILAREN 24KO 49/2009 DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUA EGIN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak aurreikusita dauka hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua egiten hastea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua 1. atalean ezarritakoarekin bat, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek honako puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez, arau-xedapen orokorrak egiteko prozedura aplikatzeari buruzko jarraibideak onartu ziren. Horietan zehaztu zenez, aurretiazko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak bete ahal izango du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan iragarkia jarriz.

Aurrekoa betez, eta egin aurretik, honen bidez herritarrei eskatzen zaie Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko den eranskinean jasotako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den eguna.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria

(Elektronikoki sinatua)

Izpta.: IVAN PEDREIRA LANCHAS





HONDAKINAK HONDAKINDEGIETAN BILTEGIRATUTA ETA BETELANAK EGINDA EZABATZEA ARAUTZEN DUEN OTSAILAREN 24KO 49/2009 DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUA EGIN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA.

<p>EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</p>	<p>Historikoki, kraft orearen ekoizpeneko kareharrizko lohiak hondakin-korronte garrantzitsua dira, Euskal Autonomia Erkidegoan horiek kudeatzeko problematikari dagokionez, sortzen diren hondakinen bolumen handia dela-eta (110.000 t inguru urtean, Eusko Jaurlaritzaren 2018ko hondakin ez-arriskutsuen inbentarioko datuen arabera) EAEn kokatutako kraft orearen ekoizten duten enpresetan.</p> <p>Horrela, aipatutako ekitaldian, hirugarren hondakin garrantzitsuena da autonomia-erkidegoko sorrerari dagokionez, sortutako eta inbentariatutako hondakin ez-arriskutsu guztien % 3ko ekarpena izanik. Horien kudeaketa-eragiketari dagokionez, % 85 ezabatu egin dira 2018an zabortegean utzita.</p> <p>EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020ko Planaren jarraipenean, 2010 eta 2018 artean kareharrizko lohi horien sorrera % 27 handitu dela eta balorizazio materiala % 20 murriztu dela ikusi da, eta alde hori handitu egin da zabortegean biltegiratuta egindako kudeaketan.</p> <p>EAEko instalazioetan kraft orearen ekoiztean sortutako kareharrizko lohiek lehengai batzuen oso antzeko ezaugarriak eta osaera dituzte; beraz, lehengai horien ordean ekoizpen-zikloetan sar daitezke berriro, hala nola karea (lohi horiek kiskaltze-labeetan tratatu ondoren lortutakoa), zementua ekoizteko kaltzio karbonatoa edo kareharri medeagarriak ekoizteko kaltzio karbonatoa.</p> <p>Bestalde, papera ekoizten duten enpresek beren jardueran beste hiru hondakin mota sortzen dituzte: tinta-kentzearen lohiak, hondakin-uren arazketako lohiak eta hondakin-paperaren baztertzea (gaikako bilketarako paper-hondakinak garbitzean lortzen den plastikozko frakzioa da. Paper-enpresa batzuek lehengai gisa erabiltzen dute). Hiru hondakin-korronte horiek, kraft orearen ekoizpeneko kareharrizko lohiak bezala, arazo esanguratsua dira sortutako kantitateari eta gaur egun zabortege baimenduetan duten erabilera nagusiari dagokienez.</p>
--	---



	<p>2018an, 95.000 t sortu dira, hau da, sortutako hondakin ez-arriskutsuen % 3. Horien kudeaketa-eragiketari dagokionez, 2018an % 52 zaborregian utzita ezabatu dira.</p> <p>Hiru hondakin-korrante horiek, kareharrizko lohiek bezala, balorizazio material edo energetikorako hainbat aukera dituzte, hala nola arazketa-lohietarako nekazaritza-erabileretan; arazketako edo tinta-kentzearen ondoriozko lohietarako pirolisi-instalazioetan, hondakin-papera baztertzea erregai gisa erabiliz; edo, oro har, hiru korranteak gasifikazio-instalazioetan, igarotze-gasaren materia organikoaren edukia aberastuz; eta, etxeko eta merkataritzako hondakinen balorizazio energetikoko instalazioetan, hondakin horien izaera etxeko hondakinekin parekatu ahal izanez gero.</p> <p>Beraz, Europar Batasunaren helburu estrategikoekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020ko Planarekin bat, hondakin horien balorizazioa sustatu beharreko praktika bat da, EAEko hondakinen kudeaketako arazo nagusietako bat konpontzeko.</p>
<p>ONARTU BEHARRA ETA HORRETARAKO AUKERA</p>	<p>Europa 2020 strategiaren esparruan, helburu nagusietako bat "baliabideak eraginkortasunez erabiliko dituen Europa bat" izateko bideari ekitea da. Bide horretan kokatzen da "ekonomia zirkularra" kontzeptua. Horren bidez, egungo erauzketa-, ekoizpen-, erabilera- eta ezabatze-ekonomia linealaren aldaketa bultzatu nahi da, gizarte-eredu zirkular berri baterantz. Horrek stockak eta materialen, energiaren eta hondakinen fluxuak erabiltzen eta optimizatzen ditu eta, amaierako helburu gisa, baliabideen erabileraren eraginkortasuna lortu nahi du.</p> <p>Hondakinen eta Kutsatutako Lurzoruen 2011ko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 8. artikuluan (Hondakinen hierarkia) xedatutakoaren arabera: <i>"Administrazio eskudunek, hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren arloko politikak eta legeria garatzean, hondakinen hierarkia aplikatuko dute, ingurumen-eragiketa global onena lortzeko, honako lehentasun-ordena honen arabera:</i></p>



	<p>a) <i>Prebentzioa;</i> b) <i>Berrerabiltzeko prestatzea;</i> c) <i>Birziklatzea;</i> d) <i>Bestelako balorizazio-motak, balorizazio energetikoa barne; eta</i> e) <i>Ezabatzea.</i>"</p> <p>22/2011 Legearen 23.1 artikuluan honako hau jasotzen da: "<i>Hondakinak ezabatu aurretik tratatu egin beharko dira, salbu eta teknikoki bideragarria ez bada edo giza osasuna eta ingurumena babesteko arrazoiengatik justifikatuta ez badago</i>".</p> <p>Gainera, aipatutako 22/2011 Legearen 7., 8. eta 9. artikuluetan, hondakinen politikaren eta administrazio-eskumenen lehen hiru printzipioak islatzen dira: "<i>Giza osasunaren eta ingurumenaren babesa</i>", "<i>Hondakinen hierarkia</i>" eta "<i>autosufizientzia eta hurbiltasuna</i>". Beraz, EAeko ingurumen-organoak, bere eskumenak exekutatzean, printzipio horiek betetzen direla zaindu beharko du. Horretarako, "<i>hondakinak hurbilen dauden instalazio egokietan kudeatzea lehenetsiko du, ingurumenaren eta osasun publikoaren babes-maila handia ziurtatzeko teknologia eta metodo egokienak erabiliz</i>".</p> <p>Ildo horretatik, EAeko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020ko Planean adierazitako helburuen artean, zabortegetan korrante jakin batzuen deuseztapena murriztea dago, hala nola orea eta papera ekoiztearen ondoriozko hondakinak).</p>
<p>ARAUAREN HELBURUAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren 6.h) artikuluan eta 2.e) eranskinean jasotako hondakin balorizagarrien zerrenda handitzea. • Ekoizpen-zikloetan hondakinetatik eratorritako bigarren mailako materialak sar daitezen sustatzea. • Lehen aipatutako orea eta papera ekoiztearen ondoriozko hondakinak zabortegetan uztea saihestea, 22/2011 Legean hondakinen



	hierarkiari buruz ezarritakoa betez.
<p>IZAN DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILEAK ETA EZ- ERREGULATZAILEAK</p>	<p>Dekretu-proiektu honen helburua da, araudiaren ikuspegitik, oreka eta papera ekoiztearen ondorioz sortutako hondakinak zabortegean uztearen murrizketa oinarritzea. Ildo horretatik, balorizazio-jarduerak sustatu eta giza osasuna eta ekosistemak babestu nahi dira, hondakin horiek otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren hondakin balorizagarrien zerrendan sartuta.</p> <p>49/2009 Dekretuaren 6.h) artikulua baloriza daitezkeen hondakinen zerrendari buruz jasotzen duenez, "<i>hondakin berriak balorizatzeko kudeatzaile baimendu berriak agertu ahala, zerrenda hau erregelamendu bidez luzatuko da</i>"; beraz, ezin da aipatutakoaz bestelako arautze-teknikarik erabili.</p> <p>Azaldutako guztiak arrazoitzen du dekretu-mailako erregelamendu-izaerako arau bat idaztea. Horren bidez, merkatuari argitasuna eta segurtasun juridikoa ematen zaizkio; beraz, ez da egokitzat jotzen beste irtenbide arautzaile edo ez-arautzaile batzuk kontuan hartzea.</p> <p>Nahitaez egin behar da arau-izaerako neurri espezifikoko bat, eta ezin da bestelako irtenbiderik aurreikusi; izan ere, aipatutako hondakinen zabortegean uztea murriztu behar da, eta hori gabe arriskuan jarriko litzateke EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planean ezarritako helburuak betetzea.</p>